

ICHUA.



(MARCELINO SOROA NERE ADISKIDE MAITEARI).



Ichu gizagaisoa
 Bioliña jotzen,
 Inchaur-arbol batean
 Choria kantatzen,
 Ta áurrak ichuari
 Talua ekartzen,
 Baserriatarian
 Nituen ikusten,
 Ta negoen... ta negoen...
 Kupidaz ichuari
 Begiak ematen,
 Betiko illunbean
 Jarririk pensatzen!
 Gero, galdeturikan
 Triste bizi alzen,
 Eranzun zidan:—¿Bizi?...
 Orain nabill illtzen,
 Bioliñ char onekiñ
 Negarra isurtzen;
 Ta egunero diot
 Jaunari galdetzen
 Neretzat eguna ¡ai!

Nóiz zabaldukoden!
 Orduak joan t'etorri,
 Ta beti orlasen!...
 Baña, igandero dit
 Apaizak esaten
 Nola betiko argia
 Zeruan dagoen.
 Orduan biziko naiz!
 Orain nabill illtzen!—

.

Au entzunik, itzikan
 Eziñ egiñ nuen,
 Chori chikia ere
 Isill zan gelditzen,
 Ta arbolatik ziran
 Ostoa erortzen!

.

An... aur inozentéak
 Zebiltzan jostatzen;
 Aronzago.... ¡Zerua!
 Guri deitzen!... deitzen!

ANTONIO ARZÁC.

